

*INFORMAZIOA ETA TRACKAK ESKURATZEKO*
DESCARGA DE INFORMACIÓN Y TRACKS
**www.araba.eus**
▶ herritarrak/gaiak/ingurumena/arabako ibilbide berdeen sarea
ciudadanía/temas/medioambiente/red de itinerarios verdes

L.G. • D.L.: VI 742-2016

Arabako Ibilbide Berdeen Sarea · Red de Itinerarios Verdes de Álava

ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA · CUADRILLA DE LA LLANADA ALAVESA

112 SOS DEIAK

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Arabako Ibilbide Berdeen Sarea · Red de Itinerarios Verdes de Álava



# MENDIXURKO PARKE ORNITOLOGIKOA

# PARQUE ORNITOLÓGICO DE MENDIXUR

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Eserlekuak eta informazio panelak dauzkaten Buceadores eta Carboneros-ko behatokietatik lasai, eroso, isilik, inori enbarazurik egin gabe eta inork molestatu gabe, uretako hegazti asko begizta daitezke. Trogloditas-ko behatokian txorientzako janontzi bat dago, eta han, inguruko hegazti txiki granibororik arruntenak ikusi ahalko ditugu. Bi paseo atsegin eta errazak dira, oinez zein bizikletaz egitekoak; gainera, makalez, sahatsez, ur zuhaitzez, bertako espezieez, zuhaixkez eta lorez inguraturik egongo gara.

Mendixurko parke ornitologikoan bizi diren espezie arrunt batzuk ikusteko aukera dago urteko edozein momentutan eta eguneko edozein ordutan, hala nola murgilak, kopetazuriak eta txilinportak. Hala ere, zalantzarik gabe migrazioetan erakusten du hegaztien dibertsitateak bere unerik gorena.

Desde los observatorios de Buceadores y Carboneros, acondicionados con bancos y paneles informativos, se puede contemplar de forma relajada, cómoda, en silencio, sin molestar ni ser molestado, numerosas aves acuáticas. Desde el punto de observación de Trogloditas, donde hay instalado un comedero para pájaros, podremos observar las pequeñas aves granívoras más comunes en la zona. Son dos paseos agradables y sencillos, para ir a pie o en bicicleta, repletos de chopos, sauces, árboles acuáticos, especies autóctonas, arbustos y flores.

En el Parque Ornitológico de Mendixur se puede disfrutar de la visión de algunas de las especies residentes más comunes, como los somormujos, las fochas o los zampullines en cualquier momento del año y a cualquier hora del día. Sin embargo, si hay algún momento en el que la diversidad de las aves se manifiesta con todo su esplendor, es sin duda en las migraciones.



Mendixurko Parke Ornitologikoa Uribarri Ganboako urtegiaren hegoaldeko isatsetan dago, eta bere 70 ha baino gehiagoko azaleran ekologiaren aldetik oso interesgarriak diren fauna eta florako espezieen dibertsitate handia pilatzen da.

Hegaztiak parkearen adierazgarri nagusia dira, gehien ikusten den alderdia, eta era berean haiek elikatzen dituzten uretako eta lurreko ekosistemen osasun onaren erakusle argiak dira. Urtean zehar hainbat motatako espezie ugari, 100 espezie desberdin baino gehiago, biltzen dira parke honetan eta haiei esker ingurua leku pribilegiatua bihurtzen da; ondorioz, merezi du ezagutzea, zaintzea eta hartaz gozatzea.

Mendixurtik oso gertu dago parke hau eta Natura 2000 sarearen barruan egoteaz gain Nazioarteko Garrantzia duten Hezeguneen RAMSAR zerrendan ere badago.

El Parque Ornitológico de Mendixur se encuentra en las colas de la zona sur del embalse de Ullibarri-Gamboa y en sus más de 70 Ha de extensión se concentra una enorme diversidad de especies de fauna y flora de alto interés ecológico.

Las aves son el principal exponente del parque, su cara más visible, y a su vez el indicador más claro de la buen salud de los ecosistemas acuáticos y terrestres que las sustentan. La abundancia y variedad de especies que se dan cita en el parque a lo largo del año, más de 100 diferentes, hacen de esta zona un lugar privilegiado, digno de ser conocido, disfrutado y cuidado.

Muy próximo a la localidad de Mendixur, este parque forma parte de la Red Natura 2000 y está incluido en la lista de humedales RAMSAR de importancia internacional.



Hegaztien behaketa eta haiekiko harremana errazteko egokituta dagoen leku honek 2 bide, 3 behatoki eta informazio eta interpretazio panelak ditu.

1. **Biributxi bidetik** 1000 metro baino apur bat gutxiagoko ibilbidea egin daiteke uraren ertzean kokatutako Hegazti **Urpekarien behatokira** iritsi arte.
2. **Errekabarri bideak** 600 metro inguru ditu. Eskuineko bidea **Carboneros-ko behatokiraino** iristen da, eta ezkerreko bidea **Trogloditas-ko behatokian** amaitzen da.

Este enclave, que se encuentra acondicionado para facilitar la observación y el contacto con las aves, cuenta con 2 sendas, 3 observatorios y paneles informativos e interpretativos:

1. La **senda Biributxi**, que tiene una longitud de poco más de 1000 m, hasta el **observatorio de Buceadores**, situado al borde del agua.
2. La **senda Errekabarri**, de aproximadamente 600 m. El camino de la derecha llega hasta el **observatorio de Carboneros** y el de la izquierda termina en el punto de **observación de Trogloditas**.










**ERREKABARRI BIDEA**
***SENDA ERREKABARRI***

**BIRIBUTXI BIDEA**
***SENDA BIRIBUTXI***

Udaberriko umaldi aurreko migrazioaren eta udazkeneko umaldi osteko migrazioaren artean azken hori da ikusgarriena. Hala ere, helburua bada hegaztiak behatzea habiak egiten dituzten bitartean, edo, kopetazurien kasuan bezala, beren lurraldeagatik lehian ari diren bitartean, udaberria da sasoi egokia. Gainera, udaberrian aukera dago udazkenean leku epelagoetara migratu zuten hegaztiak berriz ikusteko, hemen geratzen baitira kumeak izateko lekuetara itzultzeko indarrak biltzen, eta horietako asko, gainera, berton geratzen dira kumeak izateko. Udaberrian inguru horretan erraz ikus daitezkeen hegaztietako batzuk, bertan bizi direnez gain, honako hauek dira, besteak beste: koartzatxoak, koartza hauskarak, zikoinak, miru beltzak eta gorriak, belatzak, sorbeltzak, uhalde enarak, larre buztanikarak eta txinbo kaskabeltzak.

(Hala ere, hegaztien dibertsitatea aldatu egiten da urtez urte, tenperaturen, uraren mailaren, elikagaiak egotearen eta abarren arabera).

Horrez gain, udan erraz ikus daitezke murgil, basahate eta kopetazurien familia osoak, baita hain arruntak ez diren espezie deigarriagoen familiak ere, koartza gorrienak esaterako. Halaber, ohikoa da muda edo lumaberritze prozesua hasten duten ahate multzoak ikustea, hala nola, ahate gorriak, beste espezie batzuen lehenengo migrazioak gertatzen ari direnean.



De las dos migraciones, la prenupcial en primavera y la post nupcial en otoño, la última es la más espectacular. Aunque si lo que se quiere es disfrutar observando a las aves comenzando con la construcción de sus nidos y, en algunos casos como el de las fochas, disputando su territorio, la primavera es la época adecuada. En primavera, además, es posible observar las aves que migraron hacia zonas más cálidas durante el otoño y que aprovechan este lugar para retomar fuerzas y regresar a sus lugares de cría, quedándose muchas en este enclave con ese objetivo. Algunas aves fácilmente observables en este entorno durante la primavera, además de las residentes, son las garcetas comunes, garzas reales, cigüeñas, milanos negros y reales, cernícalos, vencejos, aviones zapadores, lavanderas boyeras y currucas capirotadas, entre otros.

(No obstante, la diversidad de aves suele variar de año en año, dependiendo de las temperaturas, el nivel del agua, la disponibilidad de alimento, etc.)

Por su parte, en verano es fácil observar familias enteras de somormujos, ánades reales, fochas e incluso especies menos comunes y más llamativas como las garzas imperiales. También son frecuentes las concentraciones de diversos ánades, como los patos colorados, que inician la muda total del plumaje, la denominada "mancada", mientras tienen lugar las primeras migraciones de otras especies.

**www.araba.eus/web/ibilbideberdeensarea**

**www.araba.eus/web/reditinerariosverdes**